



SARE Herritarrak gaur egungo espetxe politikaren kontra antolatutako manifestazioa dela eta, Junts per la República-ren adierazpena.

ASKATASUNAREN ETA PRESOEN GIZA ESKUBIDEEN ALDE
Katalunia eta Euskal Herriaren arteko batasun eta elkartasunaren aldarria

Datorren urtarrilaren 12an, Bilbon, preso politikoen askatasuna aldarrikatzeko eta espainiar estatuan giza eskubideen eza eta bere espetxe politika mendekuan oinarritua, gehiegizko eta errukirik gabeko zigorrak salatzeko, SARE Herritarrak deitu duen manifestazioarekin Junts per la República-k bat egiten du.

Gaur egun, Espainian, estatuko estamentu desberdinetatik antolatutako bidegabeko errepresio anker eta krudela, monarkia, partidu politikoak eta hedabideen konplizitate bortitza, pairatzen duten gizaki ororen erresistentziarekin eta aldarrikapenarekin irmo handiz bat egiten dugu. Kataluniak politiko eta gizarte zibilaren ordezkari bakezale eta demokraten bidegabeko eta legez kontrako espetxeratzearekin gehiegikeri hau pairatu du, baina Euskal Herriak Altsasuko gazteen neurrigabeko zigorrekin eta euskal presoek sakabanatze jasangaitzarekin sufritu du ere bai. Errepresioak manifestari baketsuak, abeslariak eta artistak zigortzen ditu ere bai eta twiteroen adierazpen askatasuna mugatu egiten da. Estatuak gizartea izutu, isildu eta desmobilizatu nahi du.

Junts per la República-tik herritar guztioi dei eta ahulezian ez erortzeko ohartarazten dizuegu. Gu beti giza eskubideen, askatasunaren eta demokraziaren alde Espainian eta leku guztietan era baketsuan aldarrikatzen duenarekin egongo gara. Hau dela eta urtarrilaren 12an Bilbon SARE Herritarraren ondoan egongo gara. Elkartasunagaitik eta Euskal Herriarekin bat egitearen beharra dugulako. Bilboko deiadarra gurea da baita ere. Euskal Herriko borroka gure borroka da ere bai. Askatasunaren eta Giza Eskubideen aldeko borroka, une honetan mehatxatuta planetako leku askoetan, munduko demokrata guztien borroka dalako.

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 4an